

Patxi Iñigo apeza ta irakasle

Nafarroa'ko euskalzale ziñez-koen billa genbiltzala Patxi Iñigo'rekin topo egin dugu. Apeza ta irakaslea da, benetan euskalduna, gizon argia. Bera delako errian, euskal gaietan sartuak diren artean, ongi ezagutzen dute. Apez laneri gogotik eusten dio, baita euskarari aunitz begiratzen. Gaiñera, Iruña'n Izkuntzen Ikastetxean euskara irakasten dabil. Nafarro berriaren langillea da.

Nor dugu gure apez euskalzalea? Ituren erriko «Maistematea» etxean, 1942'garren urtean jaio zen. 1967'garren urtean, Iruña'n apaiztu zuten, baita Bera'ra Alzate'ko elizaren arduradun bezala bidali.


1967'garren urtean, Bera'n, euskara gutti egiten zen, erri barranean. Illekueta'ko auzora iritxi bear, dena eukaraz entzuteko eta mendialdeko baserrietan.

Zenbat zeuden Beran euskaraz ez zekitenak, jakin nai zuen. Ortarako soziologiko ikerketa bat egin zuten. Lanaren ondorioak gogorak irensteko: eundik ogeitamarrek ez zekiten errian euskaraz. Giro txar ori aldatzeko, bi osaki bear: ikastola aurrentzat eta gaueskola azeitatzat. Biyek aunitz lagundu zituen. 1974'garren urtean sortzen dute ikastola. Auxa izan dela Bera'n, euskararen alde egin dan lanik onena, berak dio: «Erritik sortua, ta erriarekin lanean dabillena».

Gaueskolak berriz, berak dienez, erriko indarrak biltzen ditu. Bere aldetik, euskara ALZATE'ko elizan sartzen alegindu zen; igandetan iru Meza ematen ditu, bat terdi euskaraz. Ez dutela ulertzen erraten diotenean, euskarari eusten dio beti.

Kristauikasbidea euskaraz ere ematen du; ba ditu zazpi talde amar amabi kidekuak.

Donosti'ko Ikastetxe Nagusian, Euskal Filologia amaitu zuen 1985'garren urtean. Bertan iru urtez, irakasle bezala jarraitu zuen. 1998'garren urtean Iruña'n asi zen lanean, euskara irakasten Izkuntza Eskolan. Bere anaya



Patxi Iñigo

dauka. Andre Iñigo, ikastetxe orren zuzendari. Euskara, egunero, lau orduz ematen du.

Euskal giroa nola dijoan Nafarroa'n, ikastetxe ortan ikusten da. 1992'garren urtean 700, 1994'garren urtean MILLA; 200 ikasle bakarrik artzen dituzte.

Patxi Iñigo'ri euskalzaletasuna, apaiztegiaren sortu zitzaion; «Garoa» liburuak argitasun berezia eman zion.

Idazlea dugu gure apeza. Ttipi-Ttappa aldizkarian agertzen ditu lanak. «Or jakinki nuen» esaldiari buruz ba dauka lan bat egiña. lagunarekin, FONTES aldizkarian.

Galdera bat egiten nion Patxi'ri: «Nola dago ikusia euskara Nafarroa'n?». «Jende arrontak ongi artzen dute», erantzuna.

Ara gizona ezin dena errearekin ordaindu.

«Zer dio Elizak Nafarroa'n, euskarari buruz» galdetzeko gogoakin gelditu nintzen. Oraindik ez bait du erabiltzen errietako izenak euskaraz, Jaurilaritzak bezala...

Latzaga

Aitasantuaren entziklika dela-ta zurekin naiz berriro Kristina Alberdi andrea

—Barkatu, Kristiñe. Zuka itzegin dizut izenburu ortan Madrid'ko Jaurilaritza sozialistean gizarte-arazoetarako Ministro zeralako. Bañan, len ere alkarrekin itzegin dutenei eta aski adiskide diranei dagokien bezala, alkarri errespeturik galdu gabe..., adiskidetasun gozoan...jika, neska, ika itzegingo zionagu alkarri! Eta, gure solasaldi au biontzat bakarrik ez bait dun, eta izkera eder ori Nafarroa'n aski galdurik bait diñagu, jende guztiak errez ulertuko dizkin erak bakarrik erabiliko dizkiñat.

Kristiñe: entzun niñenan, telebistaz, Aitasantuak orain argitaratutako entziklika orri ik emandako erantzuna. Eta sinista eidan, neska, Lotsaturik gelditu nintzala.


—Lotsaturik, Bixente? Zergatik?

Aitasantuak orain esana gaurko munduak pentsatzen dikanaren aurka zegokela esan nialako?

—Ez. Ori egia dun. Bañan, BETI, -entzun eidan ongi-, BETI! ibilli dun, eta ibilliko dun Eliza munduaren pentsaeraren aurka. Iñoiz ori gertatuko ez ba'ueke, edo mundua oso-osoa Santu egin dunelako edo Eliza osoki Pekatu uts biurtu zaigunelako izango bait ueke. Eta, bai bata bai bestea, gerta ezin ditzekeen gauzak dizkiñagu, Kristiñe.

—Baña Aitasantuak esana Zientziak erakusten dikanaren aurka zegok!

—Ori gezurra dun, Kristiñe: Ik dion ori ez baiña beste aun dun biologi edo bizitziak ziur esaten diñena: Emakume baten sabelean, ire sabelean, Kristiñe, gizakume bat sortzen ba'dun, gizakume ori, aurren- aurreneko unetik, egiazko gizakumea dela. Orixe esan din Aitasantuak ere. Egiazko gizakumea dela, eta gizakumearen eskubide guztiak badizkiñela, eta, beste eskubide ororen gañetik, bizitzeko eskubidea. Orregatik, abortoa di-



ñagula izen ditekeen gaiztakeririk aundiena.

—Ez ziotek ba kristauak beraiek ere kasorik egingo!

—Ori, nere Kristiñe maitea, ori, Aitasantuak berak ongitxo jakiña din gauza dun. Aitasantuaren eginkizuna ordea, kristauetarako erakutsitako dun. Kristauoi dagokiguna berriz, Aitasantuak erakutsitakoa betetzea.

—Baña gizakumerik geienak ez dituk kristauak. Oiek ez dituk Aitasantuari obeditu bearrik. Españi'ko Jaurilaritzak, erlijio-gabea duk. Ez dik, legeak ematerakoan, Aitasantuari begira egon bearrik.

—Berriz ere oker abil, neska. Lege batzuk, meza entzutea adibidez, kristautentzat bakarrik ematen dizkin Aitasantuak, beste batzuk ordea, gizarte osoaren onerako diran guztiak, mundu guztiarentzat ematen dizkin. Eta bizi dan norbaiteri bizia kentzea, pekatu ta gaiztakeri aundia dun, Kristiñe, kristautentzat eta kristau ez ditunentza: iretzat, Kristiñe, ire Jaurilaritzako daitekeanak, eta mundu guztiaren-

tzat.

—Nondi arraiio artua izan zezake ordea Aitasantuak, bere Elizatik kanpokoei agindu bat eman aal izateko eskubidea?

—«Mundu osora joanda, ebanjelioa gizakume guztiari zabaltu, eta, berak erakutsitako guzia nola bete, jende orori jakiñerazteko» agindua eman zion Arengandik artua din Aitasantuak eskubide ori, Kristiñe. Aitasantua bait dun, beste iñork beño geiago, eginkizun gogor, zail eta arriskutsu ori betetzeko bearkizuna eta -ortarako- aalmen guztiak badizkin Kristo'ren Ordezkarri bakarria.

—Orrela izango duk, Bixente, ik orrela ba'diok. Bañan, oraingoan Aitasantua esitik kanpo aterata dabil, apezak berak ari dituk esaten, motel!!!

—Apezak, ez, Kristiñe. Apez batzuk. Len ere beti gertatu izen dun ori. Eta beti gertatuko dun. Ez zion ajolik. I, neskato, i, fedeari ta moralari dagozkien arazoetan, Aitasantuarekin i beti!!!

Latiegi'tar Bixente.

Albiste laburrak

Itoiz'ko urtegiak orain ere eraso-aldi gogorra jaso du: Bruselas'tik dator. Inguru-giroataz beste azterketa bat egitea; urtegiaren neurriak, erdiratzea; ur-bearrak neurtzea; jolas-ekintzak urtegiaren galeraztea dira eskabideak; baiña aginduak ez, baizik aolkuak besterik ez diranez, Ali jaunak esan duenez, eskabideak aztertuko ditugu, baiña urtegia erdiratzea eziñezkoa danez, aurrera jarraituko degu, Nafarroa'n geyen zaitu bearra duana, gizakia dalako.

□ □ □

Loraillean izango diran auteskundeetan aurkezteko, Ali lendarikari Nafarroa'ko Jaurilaritzako Lendarikari izateari uko egin dio. Sortu berria dan «Napar-demokraten elkarte» alderditik jokatzekoa da.

□ □ □

Burgos'en dagon Silos Monastegiko liburutegian, jakintza alorrean garrantzi aundia duan billaketa egin da: Muskaria (Tudela)'ko notarioa zan Pedro de Agramont eta Caldiabar'ek 1632'garren urtean eskuz idatzitako Nafarroa'ko Historia; orain arte ezagutzen zan Aita Moret'ena baño berrogeita amar urtez lenagokoa. Esaten duan alegietako batean, Tuter, Noe'ren uesteko biloba zan Tubal'ek sortua da eta España osoa euskaldunek bete izan omen zan, eta arrazoi bezela, erri askoren izen euskaldunak aitatzen ditu.

□ □ □

Jakintza gayetan gabiltzanez, London'en enkantean ogeita amairu milloko peztan saldu dan Leizarraga'ren Biblia, Nafarroa'ko Aurrezki Kutxak erosia izateak poza sortu arren, arridura ere ez da urruti izan, eta baita marmarrak ere, Nafarroa'ko Aurrezki Kutxaren erabakia, Ali lendarikari bultzata artua izan zala jakindakoan. Enkantean burruka

□ □ □

Atzo zortzi Labrit pelota-lekuan,

Beloki'ko oso errez menderatu zuan Eugi: 22 ta 11 irabazi zion. Beloki'ren garaipenaren kakoa bere beso indartsuan, eta airez ain bikain jokatzean egon zan. Jua arrigarria du ta kontuz berarekin. Arretxe'k ere Armendariz oso errez menderatu zuanez, ill onen 22'an Gazteitz'en Arretxe'rekin jokatu bear du.

□ □ □

Italia'ko Giro aste bete aurreratu dutelako; igazkoa baño gogorragoa dalako eta France'ko Tour'era bear ainbat indarrak gabe iritxi zitekelako, aurtan Indurain'ek ez du Giro'n esku artuko. Orren ordez eta Tour-aurretik egingo dan Dauphine Liber'e'n, ekañaren 4'tik 11 bitarte, esku artuko du eta bertan egokituko ditu bere indarrak.

□ □ □

Nola ixildu joan dan igandean Anoeta'n Migeltxo Saralegi'k 322 kiloko aria jaso zuanik? Eta errez jaso ere! 17 segunduan eta lenengo ekañaldian. Jasoera ori ikusita, ez da arritzeko, berriz, Leiza'n egingo duan alegiñean, 323 kiloko ere jasotzea. Aurrera Migeltxo!

□ □ □

Ainbeste urtean eta danen gogoko Osasuna taldeko gertutzalle izan dan Fermin Ezcurra'k, ondo irabazitako omenaldia jaso zuan. Nafarroa'ko agintari nagusirik geyenak naikoak ez zirala, futbol-erakunde eta talde askotako ordezkariek ere bertan izan ziran. Berrogeita bi esku-erakutsitaraño eskeñi zizkieten. Zorionak!

Berri-emalle

Berri ona

Piztu da! Piztu gaitezen!

«Ikusi zuen eta sinetsi» (Jn, 20, 1-9)

JESUS piztu ez bada ez du deus balio gure bizitzak, are gutxiago gure fedeak. Kristo piztu ez bada obe du elizak mutu egotea. Kristo piztu ez bada, nola iragarri salbamenraren berri ona?

Jesus-en piztuerak garai artako apostoluak eta betiko fededunak eraberrituta uzten gaitu. Piztuer aurretik egiteko kapaz ez zirena oso normaltzat jotzen dute ondoren.

Jainkoak Kristo piztu badu, onek erran nai du Jainkoa ez dela illen Jainkoa, biziena baizik. Jainkoak ez du nai gizakiaren eriotzarik, bizia baizik.

Piztuerarik baldin bada, ez eriotzak, ez oñazeak, ez sufrimenak, ez injustiziak... ez dute azken itza. Gaizkiak ez du indarririk. Bizi, bai, biziko dira eta ortxe izango ditugu eziñak, borrokak, zailtasunak, malkoak..., baiña ez dira izango gizakia ondatuko dutenak.

Errandako guztia egia baldin bada eta sinesten baldin badugu, Jesus-en piztuer a ez da gertakari arrunta, erabakiorra eta inportantea baizik. Jesus-en piztuerak Jainkoaren aunditasunera urbiltzen gaitu. Eta bizitzarekin arremanetan jarri.

Jesus-en piztuer a ez da garai artan gertatu zen zerbait, gaurkoarekin zerikusirik ez duena; ez, piztuer a rek aldi orotako eta gizaki guztientzako salbamen a ekarri zuen.

Eguneroko esperientziak eta gure artean gertatzen dena ikusi nai ez duen gizakiak ere badu bizi-pozaren premiarik. Ikusi gabe sinisten ez duen gizakiak, ikutu gabe ezer sentitzen kapaz ez den gizarteak badu, bai, itxaropenaren bearrik eta mezu eder eta alaitsuaren premiarik.

Gizon-emakumeok eriotza eta ezereza sortzen dugun tokian Jainkoak bizia eta itxaropena sortzen ditu. Eta Jainko onengan sinesten duenak bizitza maiteko du.

Egia da, bai, piztuer a ez zela edonorrek ikusteko modukoa. Sinismen sendoa zutenek bakarrik uler zezaketan an gertatu zena. Jesus-ekin bizi izandakoak eta Jesus-ekin bizitzaren gora-beera guztiak konpartitu zutenak bakarrik uler zezaketan piztuer a ura.

Berritu dezagun gure sinismen epela eta aalegindu gaitezen bizi-poza geitzen. Eta izan gaitezen Berpiztuaren testigu zintzo eta leialak.

Artzalluz'tar Joxemari